

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.
Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Testua. TEXTO.

Leire Otxandorena Azkarate
Kale Nagusia, 5a
31796 Aniz
Nafarroa

Auzolandegietan parte hartzeko informazioa

Adiskide hori:

Gazteriaren eta Gizarte Ekintzarako zuzendaritza honetan atseginez jaso dugu **auzolandegietan parte hartzeko** egin zenuen **eskabidea**. Hori dela eta, dagokizun auzolandegiari buruzko **informazioa bidaltzen dizugu**, lehenbailehen haren berria izan dezazun eta tokia alde zurretik ezagut dezazun.

Hemendik gutxira, auzolandegia dagoen udaletik bertatik **informazio zabalago eta zehatzago bidaliko dizute** eta jarduera-arduradunak ere **bidaliko dizkizu argibideak**. Informazio horretan, **honako hauexek zehaztuko dira, besteak beste**: zein eratako lana burutuko den eta animaziorako zein egitarau dagoen antolatuta.

Informazio faltagatik nahasterik eta gaizki ulerturik egon ez dadin, auzolandegia antolatzerakoan **gure helburu nagusia zein den** jakinarazi nahi dizut. **Gure asmoa hau da**: alde batetik, leku ezberdinetatik etorritako gazteak denbora-tarte batez elkarrekin egotea eta, bestetik, auzolandegiaren ingurua hurbiletik ezagutzea.

Helburu horiek lortzeko, auzolandegiaren zuzendaritzaz eta animazioaz arduratzen den taldea ekintza eta jarduera asko ari da prestatzen baina, hala ere, nahi duzunean eman dezakezu zure uste, iritzi eta iradokizunen berri.

Seguraski, auzolandegietara joateko eskabidea egiterakoan dagokizun autonomia erkidegoko Gazteria Zerbitzukoek emango zizuten auzolandegiei buruzko **araudia** baina, hala ere, hemen duzu badaezpada, beste ale bat.

Auzolandegira **honako agiri hauek** eraman behar dituzu:

- Eskabide-orria.
- Ordainagiria.
- Gizarte Segurantzaren kartilaren fotokopia.
- Gurasoen baimena, adinez txikia izanez gero.

Nire eginbeharra auzolandegietara joan aurretik jendeari **informazioa ematea izanik**, hemen adierazi eta eskatutako guztia ontzat eta egokituz hartuko duzulakoan, ongi izan.

Iruñea, 2008ko irailaren 10a

Elena Elorriaga García
Gazteriaren eta Gizarte Ekintzarako zuzendaria

GAIA/ASIGNATURA	Euskal Hizkuntza eta Literatura
MAILA/CURSO	4. DBH
IKASTETXEA/CENTRO	Lekaroz-Elizondo BHI
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Euskara Departamentua
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Yon Gorrotxategi, Idoia Mujika, Kristina Fernandez, Belen Belarra
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	IVAP
IZENBURUA/TÍTULO	Estilo liburua
ARGIALETXEA/EDITORIAL	IVAP
URTEA/AÑO	2005
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	243
ISBN	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso
FORMATOA/FORMATO	Jarraia
MOTA/TIPO	Azalpena (gutun formal)
ERABILERA/USO	Pertsonala,...
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<p>1.- Ikasleekin gutun formal eta informalei buruzko ezaugarriak “landu” (Informazio zehatza errepasatu, hau da, “genero testualari” buruzko aurretiko ezagutzak piztea).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Agur motak gogoratu. • Egokitasunaz eta erregistroaz oharrak eman. • Gutun formal eta informalen egiturak errepasatu. <p>2.- Testuan ageri den “auzolandegi” kontzeptuaren gaineko lanketa (Aurretiko ezagutzak piztea edota informazio berria eskuratzea).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer dira auzolandegiak? • Zein garaitan joaten da jendea bertara? • Zein jende mota joaten da? • Zer egiten da bertan? • Ikasleetakoren bat egon al da auzolandegiren batean (esperientzia azaldu)? <p>...</p> <p>Oharra: komeniko litzateke irakasleak (ikasleak) gai honi buruzko informazio osagarria ekartzea.</p>
IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA	1.- Paragrafo bakoitzaren ahozko laburbiltze partziala .

	<p>2.- Testuan ageri diren igorle/hartzailea zehaztu eta bakoitzak jaso edo igorri duena zehaztu (Testuko informaziotik abiatuz inferentziak egin).</p> <p>3.- Testuan letra negritan ageri diren hitzen zergatiaz galdetu (Edukiaz eta formaz auresuposizioak egitea).</p>

JARDUERAK/PROCESOS LECTORES

Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zer da gutunarekin batera, gehigarri gisa, Gazteriaren eta Gizarte Ekintzarako zuzendariak bidalitakoa? a) Auzolandegiko animazio ekintzen egitaraua. c) Antolatzaileen helburuak. d) Auzolandegiei buruzko araudia.
	Erantzuna/Respuesta	<i>d) da erantzun zuzena. (Erantzun itxia).</i>
	2.	Beharrezkoa al da gurasoen baimena auzolandegira joateko?
	Erantzuna Respuesta	<i>Adinez txikia izanez gero, gurasoen baimena nahitaezkoa da; aldiz, 18 urte edo gehiago izanez gero, ez da gurasoen baimenik behar. (Erantzun irekia).</i>
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Zehaztu testu honen helburu komunikatiboa: a)Auzolandegietako ekintzen eta jardueren berri ematea. b)Auzolandegirako zein agiri behar diren zehaztea. c) Hartzailearen eskaera onartu dela adieraztea. d) Hartzaileari auzolandegiei buruzko informazio orokorra ematea. e) Auzolandegiko ekintza eta jardueri buruz hartzailearen iradokizunak jasotzea.
	Erantzuna Respuesta	<i>d) da erantzun zuzena, “informazio orokorra” kontzeptuaren barruan ulertu behar baitugu auzolandegiekin zerikusia duten gauza guztiak: argibideak, agiriak, araudia, helburuak,..</i>
	2.	Egin gutun honen laburpena.

	Erantzuna Respuesta	<p>Auzolandegietan parte hartzeko informazioa</p> <p><i>Hartzaileari auzolandegiei buruzko informazioa eta araudia bidaltzen zaizkio eta, horrekin batera, auzolandegia dagoen udaletik ere informazio gehiago iritsiko zaiola adierazten zaio.</i></p> <p><i>Bestalde, auzolandegia antolatzeke helburuen berri ematen zaio eta helburu horiek lortzeko hainbat jarduera prestatzen ari direla erran. Jarduera horiei begira, nahi izanez gero, iradokizunak egin ditzake.</i></p> <p><i>Azkenik, auzolandegira eraman behar dituen agiriak adierazten zaizkio.</i></p>
<p>Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS</p>	<p>1.</p> <p>Erantzuna Respuesta</p>	<p>Testuan ageri diren igorlea eta hartzailea zehaztu eta bakoitzak, jada, igorri duen edota gerora igorri behar duenaren berri eman.</p> <p>Hartzailea: <i>Leire Agirre. Auzolandegian parte hartzeko eskabidea bidali du.</i> <i>Horrez gainera, auzolandegira agiri hauek eraman behar ditu: Eskabide-orria, ordainagiria, Gizarte Segurantzza kartilaren fotokopia eta Gurasoen baimena (¿?). Azken agiri hau ez dakigu benetan eraman behar duen ala ez, ez baitakigu Leirek zenbat urte dituen.</i></p> <p><i>Era berea, nahi izanez gero, iritzia eta iradokizunak bidal ditzake.</i></p> <p>Igorlea: <i>Elena Elorriaga García.</i></p> <p><i>Orain arte igorritakoa: gutuna bera; eta auzolandegiari buruzko informazioa eta araudia.</i></p> <p><i>Ez dute bertze ezer bidali behar. Elena andereak bete du bere zeregina, hau da, informazioa ematea.</i></p>

	2.	Zein da Elena Elorriagak auzolandegiekin duen lotura?
	Erantzuna Respuesta	<p><i>Elena Elorriaga Gazteriaren eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren zuzendaria da (arduradun nagusia alegia). Gutunean irakurri dugunaren arabera, <u>zuzendaritza horretakoak dira auzolandegiak antolatu dituztenak.</u></i></p> <p><i>Zuzendaritza horren ardura da beraz, auzolandegiekin lotura duen oro, besteak beste, helburuak zehaztu, informazioa eman...</i></p>
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	<p>Hasierako agurrean ondoren adierazitako espresioak argertuko balira, zuzenak izango lirateke? Zergatik?</p> <p>1. Aupa zu! 2. Leire Otxandorena Azkarate andrea: 3. Leire Otxandorena Azkarate andere txit agurgarria: 4. Leire Otxandorena Azkarate adiskide hori:</p>
	Erantzuna Respuesta	<p><i>1. Ez da egokia izaten. Hasierako agur hau lagun artean baino ez delako erabili behar. Konfiantza handia dagoenean, hain zuzuen ere.</i></p> <p><i>2. Egokia izango litzateke, Administrazioa herritarren arteko gutun formala baita.</i></p> <p><i>3. Ez litzateke egokia izango, txit agurgarria goi mailako kargu dutenentzat erabiltzen dugun espidea delako. (Aita Santua, Erregea...)</i></p> <p><i>4. Egokia izan daiteke, baina aldi berean bitxi samarra, zure adiskidea bada , ez dituzulako deiturak aipatzen, txantxetan ez bada, jakina.</i></p>
	2.	Zergatik agertzen dira sinaduraren azpian igorlearen izen-abizenak eta kargua?

	Erantzuna Respuesta	<i>Sinadura batzuetan ez da ongi bereizten eta, beraz, ez da argi ikusten nor sinatu duen. Bestalde, betetzen ari den kargua adieraztea oso garrantzitsua da, hartzailleak jasotzen duen informazioaren baliogarritasuna antzemateko.</i>
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN - CONTENIDO	1.	Parte hartzeko eman beharreko pausuak egokiak direla uste al duzu? Erantzuna arrazoitu
	Erantzuna Respuesta	<i>Erantzun irekia</i>
	2.	Zure adineko neska-mutil batentzat zer onura ekarri dezake holako batean parte hartzea?
	Erantzuna Respuesta	<p><u>Erantzun irekia, baina iradokuzun moduan:</u></p> <p><u>Auzolandegiak</u> 15-30 urte bitarteko gazteei zuzendurik daude.</p> <p><i>Auzolandegietan elkarbizitza eta elkarlana dira alderdirik garrantzitsuenak.</i></p> <p><i>Bertan antolatzen diren ekintzak ez dira ludikoak, gizartearentzat onuragarriak diren ekintzak baizik. Ekintza horiek komunitarearen onura bilatzen dute eta era honetakoak izaten dira: ingurugiroa zaindu, ondarea berreskuratu, elkartasuna eta laguntza bultzatu; ...</i></p> <p><i>Azken finean, gazteek musu truk lan egin behar izaten dute, eta horren truke ostatua eta mantenua dohainik izaten da.</i></p> <p><i>Dena den, udalekuetan bezala, animazio-ekintzetarako ere programazio eta jarduera batzuk antolatzen dira. Horrek auzolandegiko gazteak elkar ezagutzea eta beraien arteko elkarbizitza errazten du.</i></p>
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA – OHARRAKOBSERVACIONES		